

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Goicoechea kontseilariak eraikuntza iraunkorrari buruzko Conclimat jardunaldiak inauguratu ditu

Proiektu honen emaitza nagusia da, energiaren fakturaren kostua erdira murriz zezakeen etxebizitzaren eraikinaren prototipo bat

Jueves, 22 de marzo de 2012

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilari Lourdes Goicoecheak ["I+G eraikuntza iraunkorrean. Conclimat eta beste zenbait esperientzia"](#) jardunaldien irekieran parte hartu du gaur goizean. Jardunaldi horiek martxoaren 22 eta 23an egingo dira Iruñeko Civican Aretoan, eta bertan parte hartzen ari dira: arkitektura eta ingeniariak bioklimatiko eta ingurumeneko ingeniarietako adituak, Administrazioako teknikariak, ikerketa-zentroak, unibertsitateak eta enpresak; guztira, 150 profesional baino gehiago.



Lourdes Goicoechea kontseilariak Iruñean egindako eraikuntza iraunkorrari buruzko Conclimat Jardunaldiak ireki ditu.

Jardunaldiak [Euroinova Navarra Programa](#)ren barnean dagoen [Conclimat](#) proiektuaren esparruan antolatu dira, eta haien emaitza nagusia eraginkortasun handiko etxebizitzaren eraikinaren prototipo baten diseinua da; horrek ekarriko luke energia-eskaera % 50 jaitea indarrean dagoen araudia betez eraikitako etxebizitzaren eraikin batekin alderatuz. Hori guztia, baliabideen inbertsio optimizatu batekin.

Conclimat proiektuan parte hartzen dute: [Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalak \(CENER\)](#), Nafarroako Unibertsitateko [Savia Arquitectura](#) ikerketa-taldeak, [Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabideen Zentroak \(CRANA\)](#), [Nafarroako Unibertsitate Publikoak \(NUP\)](#) eta Abaigar, Acciona Instalaciones, ACR, AH Asociados, Miyabi, eta Rockwool enpresak.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilariak jardunaldien irekieran azpimarratu duenez, ["Moderna Plan](#)ak arkitektura iraunkorra garapenerako aukera zehatz moduan adierazten du", eta horretarako beharrezkoa da eraikuntza-sektorea "berri-asmateza eta okasioa baliatzea". Goicoechea kontseilariak gaineratu du, testuinguru honetan, "I+G+b ezinbesteko tresna dela azken belaunaldiko

eraikinak lortzeko, ingurumena errespetatzen dutenak, kontsumorik gabe eta balantze positiboa eta guzti izanik, hau da, energia-sortzaile izanik".

Jardunaldiak egungo egoerari eta I+Gren etorkizunari buruz aritzeko eztabaida-foroa da ia energia-kontsumorik ez duen eraikinak egiteko bidean aurrera egiteko. Programa edukien hiru bloketan banatzen da: lehenengoan, Conclimat proiektuaz eta haren emaitzei buruz hitz egingo da osorik; bigarreanean, eraikitako ikerketako eta jasotako esperientzien benetako adibideak erakutsiko dira; hirugarrengoan, I+G+b-ren itzaropenak aztertuko dira tokiko eta Europako arloko eraikuntza-sektorean, prestakuntzaren garrantzia, talde-lana eta ezagutzaren transferentzia ezinbesteko tresna gisa azpimarratuz

Topaketa bihar Iruñeko alkate Enrique Mayak itxiko duela espero da.

Energia-eskaera txikiko prototipoa

Conclimat proiektua [2010/31/EB Europako Zuzentarau](#)ari aurreratzen zaio eta, haren arabera, 2020. urtetik aurrera, eraikin guztiek kontsumitzen duten energia-kontsumo bera sortu beharko dute. Xede horretarako, herrialde bakoitzak 2015etik aurrera bete beharreko helburu ertainak finkatu beharko ditu.

Zuzentarauak, gainera, adierazten du baldintzak zonalde bakoitzean erabaki beharko direla, egindako inbertsioen eta eraikinaren bizi-zikloan zehar aurreztutako energia-kostuen arteko oreka egokia lortu arte. Etorkizuneko araudiaren ikuspegi honekin, Conclimat proiektuak bere hasierako xedeak indartuko ditu; izan ere, energia eraginkor handiko eraikin-ereduetara jotzeko lehen pausoa da, eta epe laburrean aukera huts zena nahitaezko errealitate bihurtuko da.